

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Laudioko objektu galduak gordailutu, zaindu eta itzultzeko ordenantza. Hasierako onarpena. (UD-20/009)**

2020ko apirilaren 27an, Udalaren Osoko Bilkurak hasierako onarpena eman zion Laudioko objektu galduak gordailutu, zaindu eta itzultzeko ordenantzari, udal-arau organiko gisa.

Aurrekoa kontuan hartuta, jendaurrean jarriko da testu hori, oro har, eta interesdunei entzungo zaie, bereziki, hamabost egun balioduneko epean, horretarako iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan edonork aurkeztu ahal izango ditu alegazioak, erreklamazioak, iradokizunak eta ekarpenak.

Nolanahi ere, eta testua ahalik eta gehien zabaltze aldera, iragarkia udaleko ZUINen nahiz udaleko ediktu-oholean argitaratuko da, eta udalerriko gizarte-hedabideei jakinaraziko zaie. Gainera, bai iragarkia bai ordenantzaren testu osoa udalaren webgunean argitaratu egingo dira.

Erakusketa-aldi hori amaitutakoan, edozein alegazio, erreklamazio, iradokizun edo testuari egindako ekarpen oro Osoko Bilkurak ebatziko du, hala badagokio, testuari behin betiko onarpena emateko eta, ondoren, ALHAOn osorik argitaratzeko. Osorik argitaratzen denetik hamabost egun baliodun igarotakoan jarriko litzateke indarrean, TAOLen 70.2 artikuluan xedatutakoa betez.

Alegaziorik, erreklamaziorik, iradokizunik edo ekarpenik aurkezten ez bada, behin-behineko une horretara arteko testua behin betikotzat joko da, osoko bilkurak beste erabakirik hartu beharrik gabe. Nolanahi ere, osorik argitaratuko da ALHAOn, eta indarrean jarriko da harik eta argitaratu eta hogeita hamar egun baliodun igaro arte.

Laudion, 2020ko apirilaren 30ean

*Alkate-udalburua*

**ANDER AÑIBARRO MAESTRE**